

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Eskola hitzarmena eta hizkuntza eskakizunak

EAJk, PSE-PSOEek eta EEk lortutako eskola hitzarmenak bi hizkuntza eskakizun ezartzen ditu irakasleentzat: *1.HE*-k berba egiteko gaitasuna eskatzen du eta *2.HE*-k euskara ondo menderatzea, euskara edo euskaraz irakatsiko dutenei eskatuko zaie eta.

Sare publikoaren barruan, A ereduari (dena gaztelaniaz irakastea eta euskara gai moduan) *2.HE* hamalau irakasletik hiruri eskatuko zaie berehalakoan gainerakoei bat ere eskakizunik ez hamar urtetan. B ereduari (irakaskuntza elebiduna) *2.HE* hamalau irakasletik hamarri eskatuko zaie berehalakoan; gainerakoek *1.HE*a eskuratu beharko dute bost eta hamar urte bitartean. D ereduari (gai guztiak euskaraz eta gaztelania

gai moduan) hamalau irakasletik hamahiruri *2.HE* eskatuko zaie eta besteari *1.HE*, denei berehalakoan. Eskola guztiak eskakizun hauetara egoki daitezen hiru urteko epea emango da. *Ega* eta *Iga* tituluak dauzkaten *2.HE* maila onartuko zaie.

Sare pribatuari gobernuak eta eskolek euskalduntze-egitasmo malguagoa negoziatu beharko dute, eskakizun apalagorekin. 45 urtetik gorako irakasleei ez zaie hizkuntza eskakizunik eskatuko.

Eskola hitzarmen honen arabera ikastolek, 150 inguru eta EAEko ikasleen % 15a eskolatzen dituztenak, hautatu egin beharko dute sare publikoan ala pribatuari sartu, hitzarmen honetan ez bait da beste biderik aurrikusten.



Administrazioak 755 milioi erabiliaz funtzionariak euskalduntzeko

Euskal Autonomi Elkarte herria administrazioak 755 milioi pezeta gastatu zituen iaz funtzionariak euskalduntzen. Diru horretatik 579,7 milioi matrikulazioetan erabili ziren eta 175,3 milioi langileen ordezkaketak egiteko.

11.640 dira hizkuntza normaltzearen egitasmoan sartuta dauden langileak, hau da, EAEko herri-administrazioko langileen %88a.

Euskalduntzen ari diren 1.148 langileen artean, 662k beren hizkuntza eskakizuna betetzeko adinako maila dute, 357 lehen maila lortzekotan dira eta 129k huts egin dute, lan beharrak bultzatuta gehienetan.

Euskararen aholku Batzordearen bateragilea

Berrogeitamaika urte joan dira Mikel Ugalde Errenterian jaio zenetik. Gazte-gaztetatik pertsonaz eta gizarteaz kezkatzen hasi zen. Ardura nagusi horien barruan, euskara eta gizartearen dimentsio soziala landu ditu bere bizitzan zehar. Eremu desberdinetan egin izan du lan Mikel Ugaldek: euskalgintzan, sindikalgintzan, kazetaritzan eta irakaskuntzan.

Francoren garaian JOCen (Juventudes Obreras Cristianas) sartu zen. Seminarioan urte batzuk eman eta gero, *Zeruko Argia* euskal aldizkarian ibili zen lanean. Transizio garaian euskal sindikalismoaren apustua egin zuen eta ELAn sartu zen. Eibarko Kongresuko lehendakari izan zen.

Kazetaritzan, *Zeruko Argiako* esperientziaz gain, Mikelek *Egin* egunkariko lehen aldian hartu zuen

parte, Mariano Ferrer, Andu Lertxundi, Genoveva Gastaminza eta abarrekin.



Mikel Ugalde

Irakaskuntzan ere ibilia da. Santo Tomas Lizeoan bi urte, Irungo Ikastolako zuzendaritzan beste hiru eta Azpeitiko Institutuan. Oraindik ere han du lanpostua. Gaur egun Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordea koordinatzen du. Euskarak irakaskuntzan, lan munduan, administrazioan eta edonon bizi duen egoera eta dituen

beharrak ditu aztergai. EAB ez da organo erabakitzailea, erabaki ahal duenari aholkuak ematen dizkio. Euskararen inguruko hausnarketarako plaza ere izan nahi du EABL. Besteak beste, horretarako antolatu zituen, arrakasta handiz, azaroaren lehen hamabostaldian Udal Jardunaldiak.


Euskara Senatura?

◆ Autonomi Elkarteetako hizkuntza ofizialek Senatu espainiarrean izango duten tratamenduaz hitz egin omen zuten Madrilen X. Arzalluzek, A. Guerrak eta M. Rocak Batzar berezietan erabiliko lirateke, aldibereko itzulpen sistemaren laguntzaz.

◆ *Geroa elkarrekin* lantzen elkarte sortu da Gasteizen. Euskara bultzatzea, euskaraz bizitzeko ahalik eta aukera gehien lortzea eta Gasteizko euskaldungoa trinkotzea dira elkarte berriaren helburaetarikoa batzuk.

◆ Nafarroako zonalde ez euskaldunetako ikastolek, legeztatuak ez egon arren eta ikasleen kopuruak araudiak dioena baino murriztagoak izan arren, dirulaguntzak jasoko dituzte Nafarroako Gobernutik. Erriberako ikastolek adibidez, 50 milioi.

ELEBITASUN MOTA ZONA SOZILINGUISTIKOEN ARABERA



Euskaldunen banaketa zonaka

Euskaldunak EAEko biztanleria guztiaren laurdena baino gutxiago bizi den tokietan (1 eta 2) dira nagusi.

1. Euskaldunak guztiz nagusi diren zonetan EAEko biztanleria guztiaren %5a baino ez da bizi.

2. Euskaldunak %45etik %79ra iristen diren zonetan elebidun funtzionalak dira gehienak eta erdaldun elebakarrak hirutik bat.

3. Biztanleria osoaren %19a euskaldunak %20tik 44ra bitartean diren zonetan bizi da.

4. EAEko biztanleriaren %59a euskaldunak %20a baino gutxiago diren zonetan bizi da. Bertan erdaldun elebakarrak nagusi dira. Elebidun funtzionalak eta hartzaileak, parean.

Agintaritza eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena

1989ko urriaren 7an Oñatiko unibertsitate zaharrean Hego Euskal Herriko agintaritzaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena izenpetu zen. Sinatzaileak: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Euskal Autonomi Elkarteko hiru foru aldundiak batetik, eta Euskaltzaindia bestetik.

Sei urterako hitzarmen hau, Euskaltzaindiak egiten duen aholkularitza lana eta eskuartean dituen proiektuak aurrera eramateko eta bere barne funtzionamendurako dirubideak ziurtatzeko izenpetu zen.

Hitzarmen horren ondorioz, 1989an herri aginteok ia 160 milioi pezeta eman zioten Euskaltzaindiari. Emaila bakoitzari

jartzea egokitu zitzaion diru kopurua honako hau izan zen: Eusko Jaurlaritzari %58,4a, Nafarroako Gobernuari %10,3a, Arabako Foru Aldundiari %4,5a, Bizkaiko Foru Aldundiari %16,4a eta Gipuzkoako Foru Aldundiari %10,3a. Harez gero, urteko diru-laguntzaren kopurua urtean-urtean egokitzen da aurreko urtekoari bizitza mailaren igoera ezarritz.

Euskal Herriaren gainerako lurraldeetan aginpiderik duten

herri aginteak ere, Ipar Euskal Herrikoak alegia, bildu ahal izango dira hitzarmen honetara.

Hiru dira, nagusiki, herriagintean dirulaguntzari esker Euskaltzaindiak garatzen diharduen egitasmo nagusiak: Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Gramatika eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Datozen aleetan banan-banan ikusiko dugu zertan diren.



GREGORIO MONREAL, 50, Etxeak nafarra, Eusko Ikaskuntza elkarteko lehendakari aukeratu dute Oñatin, On Joxe Migel Barandiaranen ordean. Zuzenbidean doktorea eta Ekonomian diplomatua, EHUKo errektorea izan zen 141 eta 1985a bitartean. Senatari eta parlamentari nafar izana.

FELIX PRESA, 76, euskaltzale gasteiztarak Arabako Ikastolen Federazioaren omenaldia jaso zuen *Araba Euskaraz* 92ko ospakizunen barruan. 1956tik 800 ikasle baino gehiagori irakatsi die euskara Gasteizko ikastetxe desberdinetan.

ARANTXA URRETABIZKAIA, 45, idazle eta kazetari hondarribitarrak bere azken elaberria argitaratu du: *Auten aldatuko da nire bizitza*. Hiru nobelaren egilea, tartean *Zergatik Panpox*, gaztelaniara ere itzuli den obra. Egunkari desberdinetan idazten du.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Wellingtono Dukea, 2 01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Probintzia:.....

Tfnoa:.....

Udal jardunaldiak

Euskararen Normalizazioari buruzko Udal Jardunaldiak da HPINek Agiriak bilduman (3. zenb.) argitaratu duen azken liburutxo. Bertan 1991ko azaroan EAEan zehar egindako udal jardunaldien berri jasotzen da. Lagungarria euskararen normalizaziorako egitasmoak eta jokabideak udal mailan finkatzeko.



Galdezka

Erabilera eremuak

G. Zein garrantzia, dute zure iritziz euskararen ohizko erabilera eremuak?

E. Ohizko erabilera eremuak sendotu egin behar dira, hizkuntzaren eginkizun modernoak bakarrik bultzatzeak ez bait du ziurtatzen hizkuntzaren normalakuntza. Horrek esan nahi du eguneroko bizitzako ereruetan gehitu egin behar dela euskararen erabilera, esate baterako, familiako bileretan, kuadrilan, lagunartean eta, orohar, jendearekiko harremanetan.

Familia, oinarri-oinarrizko gune edo eremua da, familiak bermatzen bait du hizkuntza belaunaldi batetik bestera igaroko dela. Hori izan ezean, beti hutsetik abiatu beharko lukeen makina bihurtuko litzateke hezkuntza sistema, eta, onenean ere, berebiziko ahalegina egin ondoren ez luke, inoiz, familiak adinako etekin edo emaitzarik lortuko.



M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Ahaztu beharreko irudipenak

Aita Luis Villasanteren ustez badira euskararen auziaren inguruan zerbait uste oker, askotan itsu-itsuan irensten direnak eta gauzak behar den moduan planteatzeko burutik kendu beharrekoak.

1. Herritik desagertua eta zeharo itzalia den hizkuntza askatasunaren edo abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dela uste izatea. Inoiz, Irlanda edo Ameriketako kasuetan adibidez, kontrara ere gertatu izan da.

2. Hizkuntza gure identitatearen ezaugarri nagusia, gure arimaren odola, etab., dela uste izatea.

Hizkuntzak zeinu sistemak dira, gizonek elkarri heren burutapenak adierazteko erabiltzen dituztenak. Beste balioak erantsiak dira.

3. Euskara hizkuntza oso zaharra dela, bere inguruan dituen guztiak baino lehenagokoa, euskaldunon harrokeriarako askotan erabili izan den leloa da. Esan daiteke, ordea, gaur

toki honetan bere aldameneko beste hizkuntzak baino zaharragoa dela.

4. Hizkuntza batzuk berez bikain eta goi mailakoak eta beste batzuk ezgauza eta desegokiak dira. Zenbaiten ustez (Larramendi eta apologistak), lehen sailean legoke euskara. Beste batzuen aburuz (Unamuno), bigarreanean. Ez bat eta ez beste.

5. Batzuetan aipatzen dira hizkuntzen eskubideak ere... Baina hizkuntza ez da pertsona, tresna baizik. Lagun bati entzuna datorrit gogora: "Eta euskara galduko balitz, zer? Ez ginatke horregatik mutu bihurtuko. Izango genuke beste tresnaren bat behar diren gauzak adierazteko".

Hausnarketa hauek, Aita Luis Villasanteren *Euskararen ausiaz* liburutik atera dira.

✓ Kontutan hartzeko

- **EHU Udako XI. Ikastaroak.** Donostian izango dira, uztailaren 6tik irailaren 13ra bitartean. 15 ziklo eta 46 ikastaro jorratuko dira bertan. Berrikuntzak: medikuntza, informazio zientziak eta euskal sortzaileak. 400 irakasle eta 105 milioi pezetako aurrekontua.

- **AEKren Uda Kanpaina.** Aurtengo kanpaina hiru zutabetan oinarrituko da: ikastaro trinkoak, egunero 2-5 orduko eskolak hartuz,

barnetegiak, bi edo lau astekoak, eta AEKbidaiak, oporrak talde txikietan euskaraz bizitzeko, bost aukera zoragarriekin.

- **Uda euskaraz.** Donostiako Udalaren Euskararen Udal Patronatoak *Uda euskaraz* hiztegitxo argitaratu du. Europar edo amerikar udatarrentzat egina dago, euskaraz, ingelesez, frantsesez, italieraz eta gazteleraz. 5.000 ale atera dira geure hizkuntza badugula jakin dezaten.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA